

9. HENRI WALLONEN GARAPENAREN PSIKOLOGIA

Mendebaldeko psikologia marxistaren ordezkari baten ekarpena hartu dugu gunetzat gai honetan zehar, hain zuzen ere, Henri Wallonenena. Lehengo zatian, Lehen Mundu Gerrak bere lanetan izan zuen eragina zehaztuko da; horren ostean, Wallonek proposaturiko psikologia genetiko eta ingurunearen psikologia kontzeptuak azalduko dira; ondoren, garapenaren aroak izendatu eta horien ezaugarriak azalduko dira. Horrez gain, gaian sakontzeko jarduera, gaia menderatzeko oinarritzko kontzeptuak, autoebaluazioari buruzko edukiak eta irakurgai osagarriak bilduko dira.

9.1. Psikologia genetikoaren eta ingurunearen psikologia

Henri Wallonek (1879-1962) psikologian aritu aurretik, prestakuntza akademiko luzea izan zuen, filosofian, medikuntzan eta neuropsikiatريان.

Lehenengo Mundu Gerran, mediku gisa jardun zuen zentro psikiatriko batean. Henri Piéronekin batera (1881-1964), gerraren ondorioz hainbat pertsonak zituzten nerbio-gaixotasunak aztertzen zituen. Egile horri esker, umeen psikologiaren esparruan sartu zen eta, 1919an, Psikologiaren Institutuan lan egiten hasi zen. Garai hartan, Pariseko unibertsitatean, haurren psikologiari buruz hitzaldia eskaini zuen, eta bere lana ezagutzera eman zuen nazioartean. 1922an, umearen psikobiologia aztertzeko laborategi bat sortu zuen. Han, garapenaren alde organikoak lan-ildo bihurtuko ziren.

1933an, Frantziako Pedagogiaren Elkarteko lehendakaria izendatu zuten, eta irakaskuntzari buruzko planteamendu demokratikoagoa eta irekiagoa proposatu zuen. Aukeren berdintasunean, irakasleen prestakuntza iraunkorrean eta umearen gaitasun eta baldintza sozialetan oinarritutako proiektu baten diseinuan hartu zuen parte. Wallonek elkarte horretatik, behin eta berriz egin zituen bakearen, desarmearren, berdintasunaren eta herrien askatasunaren aldeko artikulak, adierazpenak eta deialdiak.

Lehen eta Bigarren Mundu Gerren artean, ideologia komunistan oinarrituta, garatu zuen psikologia eta pedagogia, aldizkariak, ikerketak eta lan administratiboa eginez, besteak beste. Haren artikulak eta lanen artean, honako hauek nabarmendu daitezke: 1934ean, *Haurraren nortasunaren jatorria*; 1941ean, *Haurraren garapen psikologikoa*; eta 1945ean, *Haurraren pentsamenduen jatorria*.

Bigarren Mundu Gerra amaituta, Frantzia osoak gurasorik ez zuten umeen egoerari aurre egin behar zion. Wallonek bere ideologia marxistak bultzaturik, arazo horiek

konpontzen parte hartu nahi izan zuen. Hala, bere lana eta denbora ume haiekin egoteko erabili zituen. Garai hartan aurkitu zuen guraso gabeko umeek segurtasuna ez izateagatik emozioa, erantzukizuna eta portaerak eraikitzekeo estrategi bereziak erabiltzen zituztela. Wallon konturatu zen umeak nortasun orekatua eraikitzekeo, ingurunetik segurtasuna bilatzen zuela, psikismo mindu batetik nortasun osasuntsu batera pasatzeko bidea baitzen.

Psikologo marxista gisa, Wallonek zioen prozesu psikologiko guztiak lotuta daudela, eta aurrerapen naturalek aldaketa eta mugimendu kualitatiboak dakartzatela. Aldaketa horien motorra, beraz, indar naturalen elkarrekintzak dira. Ikuspegi horretatik abiatuta dio psikologia betidanik dualismoen artean murgildu dela, hain zuzen, pertsonaren eta objektuaren dualismoan. Ordura arte emandako erantzun guztiek dikotomia hori mantentzeko xedea zuten. Berak, berriz, zientzia naturalak eta sozialak bateratzen dituen psikologia garatu zuen, *Psikologia genetikoa* izenekoa; hark azaltzen du pertsona hasieratik biologikoa eta soziala dela. Haren ustez, soziala denak oinarri organikoa du. Ikuspuntu horrek soziologia eta biologia uztartu nahi ditu. Hala, gizakia, unitate gisa, haren garapenean aktiboa da, eta, ondorioz, ez dago gizartearen, arimaren edo sistema nerbioaren menpe. Ildo horretatik, Wallonen ekarpen garrantzitsuenak errealitatearen eta gizakiaren *aktibismoaren* eta *integrazioaren* ideiak dira: ikuskera dialektiko batean, ekintza, trukea, integrazioa eta elkar barneratzea nabarmentzen du.

Aurrekoaren ondorioz, gizakia bere portaeraren arabera aztertuko da, erreakzionarazten dioten baldintzen arabera. Wallonek dio horiek ez daudela kontrolaturik, baina egitura biologikoen eragina edo prozesu horretan psikismoaren parte hartzearen eragina ere ez. Pertsonak hartu-emanak ditu beste gizakiekin; elkarrekintza horretan, taldeak harreman indibidualen gaintik erreakzionatzen du; halaber, erantzun hori “egoera” zehatz horretatik datozen faktoreek baldintzatuta dago. Objektuari dagokionez, haren garrantzia pertsonarentzat duen esanguran datza. Wallonek horren guztiaren berri izateko, batez ere, behaketa, azterketa eta konparazioa erabiltzen ditu umearen garapen psikologikoan.

Ikerketa-metodoari dagokienez, Wallonek dio egokia dela diziplina eta metodo askorekin lan egitea. Hala, honako hauek hartu behar dira kontuan: anatomia, ekologia, antropologia, linguistika, sinesmenen eta ohituren historia, umearen hazkunde somatikoa zein psikikoaren behaketa eta abar. Horrez gain, behaketa konparatiboa eta inkesta erabiltzen ditu, analisi esperimentalaren funtzioak betetzen baitituzte; horri esker, beste ikerlari batzuen behaketak eta interpretazioak komunean jar daitezke.

9.1.1. Psikogenesiaren eta soziogenesiaren arteko erlazioa

Wallonek *psikogenesiaren* garapena *soziogenesian* oinarritutako prozesua dela azaldu nahi du. Lehen esan bezala, Wallonen ustez, gizakia soziala da, eta haren garapena besteekeko elkarrekintzek baldintzatuta dago. Umearen baldintza organikoek, sozialek eta pertsonaren historiak bultzatzen dute aro batetik besterako urratsa. Adierazpen psikikoak egitura organiko batzuetan oinarrituz garatzen dira, eta, ondorioz, egitura organiko horiek dira abiapuntua.

Aipaturiko egiturek adierazpen psikikoak sortzen dituzte eta, gero, sozialak izatera pasatzen dira. Hala, psikogenesia ingurunearekiko hartu-emanen sortzen da. Wallonek dio psikogenesiaren oinarria soziogenesia dela. Hau da, besteek haurraren egiten dituzten ekintzek eta elkarrekintzek mugatzen dute garapen psikologikoa.

Ikus daitekeen bezala, Wallonek inguruneari zeregin garrantzitsua egozten dio, inguruneak sortarazten baititu aldaketak umearengan. Bestalde, haren ustez, umeak ingurunea aldatzeko gaitasuna du. Izan ere, adimena, afektuak, mugimenduak, asmoak eta abar ingurune horretan proiektatzen ditu. Hala, esaten du aldaketak gertatzeko umearen eta ingurunearen arteko elkarreragina beharrezkoa dela.

9.1.2. Zenestesiaren inguruko ekarpenak

1945an argitaratutako *Haurraren nortasunaren jatorria* lanean, zenestesiari buruzko ideia jorratzen du. *Zenestesia* (“gorputzak duen sentsibilitatea”) nortasunaren sentimenduaren oinarritzat hartzen du. Haren ustez, sentsibilitatea ez da jaiotzetikoa, baizik eta garapena gertatu ahala agertuko da. Sentsibilitatea hiru kategoriatan sailkatzen du. Lehenengoak, *sentsibilitate interozeptiboa* deiturikoak, digestio hodiarekin eta elikadurarekin du lotura, eta jaioberriarengan nagusia da; sentsibilitate bakarra da; bigarrena, *sentsibilitate propiozeptiboa*, postura, mugimendua eta orekarekin lotutako sentsibilitatea da. Azkenik, hirugarrenak, *sentsibilitate estereozseptiboak*, kanpokoekin lotutako sentsibilitatea, ingurunearekin du lotura zuzena.

Wallonen ustez, jaioberriaren kasuan aipaturiko sentsibilitate horiek ez dute inolako loturarik elkarren artean. Hala ere, hirugarren hilabetetik aurrera, benetako sentsazioak izango ditu; ordura arte, “inpresioak” baino ez dira. Wallonek umeak ispiluaren aurrean egindako ikerketen bidez azaltzen du prozesu hori. Jaiotzean, umeak ez daki zein den inpresioen iturria. Sentsibilitatea interozeptiboa da, eta umeak ez du bere

irudiaren aurrean erantzuten. Ondoren, hirugarren hilabetean, asoziazio intersentsorialak egiten hasten da. Horien ostean, laugarren hilabetean, bere irudiari begiratzeari ekiten dio eta barre egiten du. Azkenik, hamabosgarren hilabetean, zenestesiaren garapen osoa gauzatzen da.

9.2. Garapen-aroak

Liburu honetako laugarren gaian aipatu den bezala, Walloni bere osotasunean interesatzen zitzaion gizakiaren garapena, hau da, garapen emozionala, kognitiboa eta soziala. Haren ustez, umea garatzen ari den sistema oso bat da, eta, sistema horrek dituen hainbat aldetan elkarren arteko mendekotasuna gertatzen denez, ezinezkoa da horiek isolatutzat jotzea. Ildo horretan, ikuspegi integratzailea zuen.

Wallonek hainbat arotan banatzen du haurren garapena, aro bakoitzari garapen-egoera zehatza dagokio, garapena osatzen duten alde guztiak kontuan hartzen dituen egoera, hain zuzen ere. Batzuetan, egoera zehatz hori krisialdi gisa agertzen da. Horrez gain, aro bakoitzean, lotuta dauden hainbat jarduera gertatzen dira. Horren ondorioz, umearengan, aldaketak eta portaera berrien integrazioa gertatzen dira.

Aroak ez dira era linealean edo mekanikoan gertatzen, geldialdiak, arazoak, kontraesanak, aurrerapenak eta atzerapenak izaten dira. Ondorioz, aro horietan, aniztasun psikologikoa handia da pertsonen artean. Baina badago aroetan nagusi den jarduera edo *garapeneko betebeharra*. Jarduera horiek garapen-aro bakoitzean nagusi diren prozesu, jokabide eta harreman-ereduak dira. Nagusitasun hori txandakaturik doa eta, batzuetan, Nia eraikitzea dute helburutzat. Beste batzuetan, berriz, kanpoko mundua eraikitzeko asmoa dute. Umearen baldintza organikoek, sozialek eta gizabanakoaren historiak bultzatzen dute aro batetik besterako urratsa (ikus 9.2.01. taula).

Wallonen garapenaren deskribapena *mugimendu-aldakortasunaren aroa* delakoarekin hasten da, bizitzaren lehen sei hilabeteetan. Aro horretako jarduera nagusiak funtzio fisiologikoak dira, eta umearen egoera lasaitasunaren -ase eta eroso dagoenean- eta tentsioaren -deseroso, edo goseak dagoenean eta tentsio organikoa duenean- artean egongo da. Hau da, hipotoniaren eta hipertoniaren artean. Une horretan, umea organismo oldarkorra da eta haren portaera betebeharrak fisiologikoek menderatuta dago.

Beste pertsonekin izandako harremanen eraginari esker, lehen aroa gainditu eta umea *emozio-aroan* sartu ahal izango da. Tentsio fisiologikoak gizakien esku-hartzearen ondorioz murriztuko dira. Umearen beharrianak asetzeko amak egiten dituen ekintzek

tentsio-murrizketaren iragarle bihurtzen dute haren presentzia. Amaren eta umearen artean, mimikan eta keinuetan oinarritutako komunikazio-sistema sortzen da. Hori dela-eta, Wallonek dio ingurunearekiko lehenengo harremana afektiboa dela. Hala, ama, biologikoki beharrezko izatetik, psikologikoki beharrezko izatera pasatzen da. Prozesu hori hirugarren hilabetean hasi eta bederatzigarrenean amaitzen da.

Hurrengo aroa *sentsomotorra* da. Lehen urtemuga baino lehenago hasi eta hirugarren urtean amaitzen da. Umea ekintzak egiten hasten da ingurune fisikoan, gauzak manipulatzeko eta esperimendatzeko. Umeak hitz egiten ikasten du. Horrez gain, errepresentazioaren funtzioa eskuratzen du eta ibiltzen hasten da; bere esku askeei esker, objektuak hartzeko eta horiekin hainbat egoera sortzeko gai da. Ibiltzen hasteak ingurunea esploratzea errazten du, eta, hizkuntza eta irudikatze gaitasuna lortzen dituenek, ingurunearekiko ekintza modu berri bat izango du. Umearen energiak objektuen mundua hartzen du gunetzat; hitzaren eta eskuaren bidez, ingurunea miatuko du. *Erreakzio zirkularra* deitutako prozesua jartzen da martxan. Haren ekintzek objektuetan duten eraginak ekintza bera aldatzen du, lortu nahi den efektua hobeto lortzeko edo beste efektu batzuk lortzeko.

Laugarren aroak *Nia* eraikitzea izango du ardatz, eta *nortasunaren aroa* deitzen zaio. Hirugarren urtean gertatzen den kontrakotasun-krisialdiarekin hasten da; umea bere nahiak inposatzen saiatzen da eta inguruan dituen pertsonen nahiei muzin egiten die. Wallonen ustez, ekintza horiek umeak deskubritu berri duen *Nia* finkatzeko dira baliagarriak. Orain arte, ingurunearekin nahasirik bizi izan den umeak pertsona bereizitzat hartzen du bere burua, eta, bereizte hori azpimarratzeko, kontrakotasuna erabiltzen du.

Nortasunaren aroan, hala ere, besteen afektua eta onarpena beharrezkoak dira, eta umea konturatzen da kontra egitearekin ez duela horrelakorik lortzen. Orduan, gutxi gorabehera lau urte dituenek, bere trebetasunik hoberenak erabiltzen hasten da besteen afektua eta onarpena lortzeko, besteak gogatzeko, haien arreta erakartzeko eta haien txaloak lortzeko. Adin horri “graziaren adina” deitu ohi zaio. Hala ere, batzuetan ez zaizkio gauzak ondo ateratzen eta, orduan, besteak imitatzeari ekiten dio; hala, ama edota aita imitatzean, horren aprobazioa lortuko du. Imitazioa, beraz, “graziaren adina”ren beldurrak eta desengainuak gainditzeko bidea izango da.

Nortasunaren aroaren ostean, kanpoko mundua izango da hurrengo beste aroaren ardatza, *kategoriaren arabeko pentsamenduaren aroa*, hain zuzen ere, eta nerabezaro arte hedatuko da. Aro horretan, kategoriak sortuko dira eta ordura arte isolaturik zegoen informazioa antolatze gaitasuna izango du; hala mundua ordenatua eta logikoa

bihurtuko da. Wallonen ustez, garapen aro horretan heziketan umeei askatasuna emanaz gero, sortzen diren beharrek eragin positiboa izango dute izaeran eta adimenean.

Nerabegaroko aroarekin amaitzen da Wallonek deskribatutako garapen-zikloa eta, hamaika edo hamabigarren urtean hasten da. Nerabegaroko aldaketa fisikoek umeak ordura arte zuen gorputz-eskema desagerrarazten dute eta, berriz, eraiki behar izaten du. Hori dela-eta, ni fisikoa zein ni psikikoa (maila afektiboan, intelektualean eta sozialean) kolokan jartzen dira. Pertsonak irudi berria eraiki behar du bere buruaz eta irudi hori autonomoa izatea nahi du. Beraz, beharrezkoa da lehen zeuzkan identifikazioak - gurasoekin edo gizartearekin identifikatua baitzegoen eta imitatu egiten zituen- bertan behera utzi eta horien kontra jartzea. Baina, hausnarketa horiek egin ahal izateko, beharrezkoa da gaitasun intelektualetan garapena gertatzea. Beraz, sasoi horretan, pertsonak haurtzaroko Niari amaiera emango dion nortasun berria sortzen du, lehenik fisikoa eta gero psikologikoa.

9.2.01. taula. Wallonek proposaturiko garapenaren aroak

ADINA (urteak)	AROA	EZAUGARRIAK
0-6 hilabete	Mugimendu- oldarkortasuna	Umeak funtzio fisiologikoak asetzen ditu.
3-9 hilabete	Emozioa	Amaren eta umearen arteko komunikazioan sakontzen da. Lehenengo harreman afektiboa da.
9 hilabete-3 urte	Sentsomotorra	Ingurunearekiko elkarrekintza areagotzen da. Umea hitz egiten eta ibiltzen hasten da. Irudikatzeko gaitasuna sortzen da. Umearen objektuetan jartzen du arreta, miatu egiten du. Erreakzio zirkularra martxan jartzen da.
3-6 urte	Nortasuna	Kontrakotasun-krisiarekin hasten da. Nia finkatzen da. Umeak, lau urterekin, gogatzeko estrategia erabiltzen du.
6-11 urte	Kategorien araberako	Kategoriak sortzen dira, mundua zerbait ordenatua eta logikoa bihurtzen da.

pentsamendua

11 < urte Nerabezaroa Aldaketa fisikoak gertatzen dira eta irudi berria sortu behar du.

Laburbilduz, Wallonek garapen psikologikoa sei arotan sailkatzen du: mugimendu-
oldarkortasunaren aroa (0-6 hilabete), emozioaren aroa (3-9 hilabete), aro sentsomotorra (9
hilabete-3 urte), nortasunaren aroa (3-6 urte), kategorien araberako pentsamenduaren aroa
(6-11 urte), eta, azkenik, nerabezaroaren aroa (11 urtetik aurrera).

9.3. Gaian sakontzeko jarduera

Helburua: Wallon, Freud, Erikson eta Piaget egileek proposatutako garapen-aroen arteko desberdintasunak identifikatzea.

Beharrezko baliabideak: gai honetako eduki guztiak, hau da, 9.1., 9.2., 9.4., 9.5. eta 9.6. atalak.

Prozedura:

- Lauzpabost pertsonako taldeak osa itzazue.
- Wallonen garapenaren aroen ordenari jarraituz haur baten garapena deskriba ezazue ikuspegi integratzaile batetik (ezagutza, emozioa, harremanak, eta abar).
- Horrez gain, deskripzio horretan, beste autore baten ekarpena (Piaget, Erikson, edo Freud) txertatu behar duzue.
- Deskribapena amaitu ondoren, eskolako beste ikaskideek Walloni eta beste autoreei dagozkien garapenaren estadioak identifikatu beharko dituzue.

9.4. Gaia menderatzeko oinarritzko kontzeptuak

Psikologia genetikoa

Aktibismoa

Integrazioa